


UBIDEko toponimoen mapa

eskala: **1/4000**
2010 otsaila







Distantziak kilometrotan

Donostia-San Sebastián: 103 Km
Vitoria-Gasteiz: 24 Km
Bilbo: 46 Km
Iruña / Pamplona: 111 Km
Otxandio: 9 Km
Igorre: 22 Km
Durango: 27 Km

Deskribapena

Bizkaiko HS muturrean kokatzen da Ubide. Hedaduraz 2,9 km^2 dauzka; Bizkaiko Otxandio, Dima eta Zeanuri eta Arabako Legutio eta Zigoitia udalerriekin muga egiten du. Gorbearen mendi magalean 581 metroko altueran dago. Ubide izenaren jatorriak dioen bezala uren bidea da: Undabe erreka Gorbeatik jaisten dena eta Zubizabala Barazar mendatetik jaisten den errekak bat egiten dute Ubide herrian.

Ubide XV mendean San Juan bataiatzaileari eskeinitako parrokiaren inguruan sortutako udalerria da, ordura arte Zeanuri barrutian zegoen.

Udalerri honen egituratzea garai haietako burdinola edo sutegien inguruan sortutako zimendu sozioekonomikoetan daude. Ubideko hainbat toponimia horren isla dira: Zuazola, Aurtenola, Olalde, Subisola, Olazar... Beraz esan daiteke burdinari lotutako jarduerak osaturiko biztanlegoa zela nagusi: oso ezagunak dira ubideko olagizon eta errementariek utzitako arrastoa: Latxaterren Baserria eta hauek ekoizten zen untza. Ubiden beste bereizgarria Ubideko sarreran dagoen Aretxegatarren txalet gorria da.

Gaur egun 168-175 biztanle arteko herria da eta gehienak herritik kanpo ateratzen dira lan egitera, nahiz eta basogintza, artzaintza, abeltzaintza eta nekazaritzatik bizi den jendea badagoen. Pagobieta (Idiazabal) gazta dugu horren adibide.

Bilbo eta Gasteiz lotzen zituen erdi aroko kaltzada erromatarra Ubidetik igarotzen zen. Plaza alboko etxeko horman itsatsirik dagoen idazkunak halaxe dio: *"por esta calzada pasó camino de Guernica el Rey D. Fernando el católico para jurar los fueros de Vizcaya en julio de 1476"*. 1960-1970 hamarkada arte probintzia arteko aduana bertan egon zen.Gaur egun bertan dago Bizkaiko ama Begoñari eskeinitako irudia. Bilbo eta Gasteiz lotzen dituen 240 errepideak Ubide herria sahiesteko zeharbidea eginda dauka.

Gorbeia Parke Naturalaren atarian dago. Esan daiteke Parke Naturalak hurbilen duen biztanleria Ubiden dagoela. Mendi txangoak egiteko aukera paregabeak eskaintzen ditu. Mendigoizale aditu batzuen irudiko Gorbeara igotzeko igoerarik nobleena Ubidetik abiatzen dena da.

Gaur egungo udaletxea den eraikina Antolin eta Jorge Ajuria osaba-lobak herri-eskola eraikitzeko emandako diruaz egindakoa da. Hauen argazkiak batzar areto nagusian aurkitzen direlarik.











UBIDE INGURUKO IBILBIDEAK



eskala: **1/4000**
2010 otsaila

UBIDEko toponimoen mapa

EDUKIA
Mapa toponimikoa (1:4000)
Kale-izendegia
Ortoargazkia 1:4000 (2008 urtea)

INFORMAZIO-ITURRIAK
Kartografia:
Ubideko Udala.
Bizkaiko Foru Aldundia. Garraioak eta Hirigintza.
Ortoargazkia:
Eusko Jaurlaritza.
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
Toponimia:
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saileburuordetzaren datu-basea.
Toponimiaren berrikusketa:
Euskaltzaindia

ESKER ONAK
Ubideko Udalak eskerrak ematen dizkie mapa toponimiko hau egiten parte hartu duten departamendu eta persona guztei.

DISEINU ETA ARGITALPEN KARTOGRAFIKOA
Geograma S.L. Tel: 902.99.55.84
www.geograma.com

OKERREN ZUZENKETA ETA IRADOKIZUNAK
Telefonoa: 945 450 322
Helbide elektronikoa: abengoa.ubide@bizkaia.org

CONTENIDO
Mapa toponímico (1:4000)
Callejero
Ortofoto 1:4000 (año 2008)

FUENTES DE INFORMACIÓN:
Cartografía :
Ayuntamiento de Ubide
Diputación Foral de Bizkaia. Transportes y Urbanismo
Ortofoto:
Gobierno Vasco. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio
Toponimia:
Base de Datos de la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco
Revisión de toponimia:
Euskaltzaindia

AGRADECIMIENTOS
El Ayuntamiento de Ubide quiere dar las gracias a todas aquellas personas y departamentos que han tomado parte en la realización del mapa toponímico

DISEÑO Y EDICIÓN CARTOGRÁFICA
Geograma S.L. Tel: 902.99.55.84
www.geograma.com

CORRECCIÓN DE ERRORES Y SUGERENCIAS:
Tel: 945 450 322
Email: abengoa.ubide@bizkaia.org

L.G. / D.L: VI-677 / 09

Ubideko Udala